



2024SECG0008  
8.bilera: OHIKOA 2024/10/24

## TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN BILKURA-AKTA

BILERA ZK.: 8/2024  
EGUNA: 2024/10/24  
HASIERA ORDUA: 17:10  
AMAIERA ORDUA: :17:35  
TOKIA: Bilera gela, 2. solairua.

### BERTARATUAK:

Alazne Txurruka Allika, alkatea.  
Asier Urain Buenetxea, lehen alkateordea.  
Monica de Prado Paniagua, hirugarren alkateordea.  
Isidro Aristi Oruezabal, Elkarrekin Orain Deba

### Bertaratzea desenkusatzan dute:

Jon Riaño Ojanguren, bigarren alkateordea.

**Idazkaria:** Jose Luis Salaberri Iñarra

### ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

#### 1. Aurreko bilkuraren akta onartzea, hala badagokio.

Aurkeztu zen, 2024ko irailaren 19an eginiko bileraren akta Tokiko Gobernu Batzarrak, onar zitzan.  
Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, onartu zuen 2024ko irailaren 19an eginiko bileraren akta.

#### 2.- Garapenaren aldeko lankidetzarako diru-laguntzak. 2024ko deialdiaren ebazpena.

Garapenaren aldeko lankidetzarako dirulaguntzen 2024ko deialdirako, guztira, 56.731,00 € daude esleituta, eta hauek dira diruz lagun daitezkeen lerro bakoitzari dagokion zenbatekoak:

- a) Kooperazio proiektuak garatzeko: ..... 36.875,15 €
- b) Garapenerako sensibilizazio- edo/eta hezkuntza-jardueretarako: ..... 1.134,62 €
- c) Larrialdi kasuetan ekintza humanitarioetarako: ..... 14.182,75 €
- d) Adin txikikoen aldi baterako harretarako: ..... 2.269,24 €
- e) Herriko gazte kooperanteentzako: ..... 2.269,24 €

Aztertu zen garapenaren aldeko lankidetzarako dirulaguntzen 2024ko deialdiaren ebazpenaren buruz Gizarte Politika Batzordeak, 2024ko urriaren 8an egindako ohiko bileran, emandako irizpena.

Hau da irizpen horren laburpena:

Sensibilizazio edo hezkuntza jardueretarako, adin txikikoen harreretarako eta herriko gazte kooperanteentzako lerroetarako ez da eskaerarik aurkeztu, eta lerro horiei zagokien 5.673,10 € horrela banatu dira beste bi lerroen artean: 4.855,85 € kooperazio proiektuak garatzeko lerrora gehitzen dira, eta, guztira, 41.731,00 € gelditzen dira lerro horretan; eta, 817,25 € gehitzen dira larrialdietako ekintza humanitarioetarako lerrora, guztira, 15.000,00 €.

## I. Ierroa. KOOPERAZIO PROIEKTUAK

### 1. Onartutako dirulaguntzak

<u>Erakundea</u>	<u>Puntuak</u>	<u>Eskatutakoa</u>	<u>Dirulaguntza</u>
1.1. Lankidetzarako Ingeniaritza .....	68 .....	5.214,00 € .....	5.214,00 €
1.2. El Salvador Elkartasuna .....	65 .....	10.000,00 € .....	7.534,00 €
2.466 €ko ez daude zurituta proiektuan			
1.3. Mugarik Gabe .....	61 .....	9.956,45 € .....	2.749,23 €
17.g) oinarria: Proiektuaren funtzionamendurako kostuak, ondasun suntsikorra erosteko eta proiektua garatzeko ezinbesteko gainerako materialak, eskatutako diru laguntzaren % 15eko muga dute.			
1.4. Lumaltik .....	60 .....	12.005,43 € .....	10.000,00 €
16.c) oinarria: Proiektu bakoitzerako eska daitekeen gehieneko diru kopurua 10.000 € da.			
1.5. Euskal elizbarrutiko misioak .....	55 .....	15.671,91 € .....	10.000,00 €
16.c) oinarria: Proiektu bakoitzerako eska daitekeen gehieneko diru kopurua 10.000 € da.			
1.6. Fundación Juan Bonal .....	50 .....	8.000,00 € .....	2.077,92 €
1.7. Fundación Agua de Coco .....	50 .....	10.000,00 € .....	2.077,92 €
1.8. Ayudemos a un niño .....	50 .....	2.500,00 € .....	2.077,92 €
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>73.647,79 € .....</b>	<b>41.730,99 €</b>	

### 2. Baztertutako eskaerak:

#### 2.1.- 50 puntutara iristen ez direlako (18. oinarria):

<u>Erakundea</u>	<u>Puntuak</u>
2.1.1. Asociación Dunia Musso .....	48
2.1.2. La otra mirada .....	47

#### 2.2.- Proiektuek baldintzak betetzen ez dituztelako:

2.2.1. AMS-Mundu Solidario Elkartea 2024: 16.a) oinarria ez du betetzen. Aurkeztutako proiektuak 25 orrialde baino gehiago ditu.

2.2.2. Acción sin Fronteras: 16.a) oinarria ez du betetzen. Aurkeztutako proiektuak 25 orrialde baino gehiago ditu.

2.2.3. Asamblea Cooperación por la Paz: 16.a) oinarria ez du betetzen. 16.a) oinarria ez du betetzen. Aurkeztutako proiektuak 25 orrialde baino gehiago ditu.

2.2.4. Gipuzkoako Oskar Romero Solidaritza Batzordea: 6.5) oinarria ez du betetzen. Ez dio kasurik egin eskaera zuzentzeko errekerimenduari.

## II. Ierroa. LARRIALDIETAKO EKINTZA HUMANITARIOAK.

### 1. Onartutako dirulaguntzak

<u>Erakundea</u>	<u>Puntuak</u>	<u>Eskatutakoa</u>	<u>Dirulaguntza</u>
1.1 Salvamento Marítimo Humanitario .....	48 .....	5.000,00 € .....	5.000,00 €
1.2. Zaporeak .....	41 .....	10.000,00 € .....	10.000,00 €
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>15.000,00 € .....</b>	<b>15.000,00 €</b>	

### 2. Baztertutako eskaerak: Ez daude.

Gaia aztertu et eztabaidatu ondoren, Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, hau erabaki zuen:



2024SECG0008  
8.bilera: OHIKOA 2024/10/24

**Lehena.-** Onartzea garapenaren aldeko lankidetzarako dirulaguntzen 2024ko deialdiaren ebazpenaren buruz Gizarte Politika Batzordeak, 2024ko urriaren 8an egindako ohiko bileran, emandako irizpena.

**Bigarrena.-** Dirulaguntza hauek ematea garapenaren aldeko lankidetzarako dirulaguntzen 2024ko deialdiaren baitan:

**I. Ierroa. KOOPERAZIO PROIEKTUAK:**

<u>Erakundea</u>	<u>Dirulaguntza</u>
1.1. Lankidetzarako Ingeniaritza .....	5.214,00 €
1.2. El Salvador Elkartasuna .....	7.534,00 €
1.3. Mugarik Gabe .....	2.749,23 €
1.4. Lumaltik .....	10.000,00 €
1.5. Euskal elizbarrutiko misioak .....	10.000,00 €
1.6. Fundación Juan Bonal .....	2.077,92 €
1.7. Fundación Agua de Coco .....	2.077,92 €
1.8. Ayudemos a un niño .....	2.077,92 €
GUZTIRA: .....	41.730,99 €

**II. Ierroa. LARRIALDIETAKO EKINTZA HUMANITARIOAK.**

<u>Erakundea</u>	<u>Dirulaguntza</u>
1.1 Salvamento Marítimo Humanitario	5.000,00 €
1.2. Zaporeak .....	10.000,00 €
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>15.000,00 €</b>

**3. Bizitza plataformak aurkeztutako Herritarren eta Bizitzaren Kulturaren aldeko mozioaren azterketa.**

Irakurri zen Bizitza plataformak aurkeztutako Herritarren eta Bizitzaren Kulturaren aldeko mozioa:

*«Herritarren eta Bizitzaren Kulturaren aldeko mozioa*

*1. Sarrera*

*Gerrak Europaren bihotzean izan duen gorakada larriari dagokionez, eta Europa eta gizateria osoa mapatik ekortzeko mehatxu larriaren aurrean, egoeraren larritasun gorena ekarri nahi dizuegu gogora, euskal eta nafar ordezkari publiko guztioi. Izan ere, gure seme-alabak, esate baterako, berehala gerrara deituak izateko arriskuan daude, dagoeneko hiru ukrainar belaunaldi akabatu dituen hiltegi batera bidal ditzaten.*

*Horrek argi erakusten digu zer nolako arrisku larrian gauden eta are gehiago erraz piztu daitekeen gerra nuklear baten gertakizunaren aurrean.*

*2. Udalbatzari eskaera*

*Horren guztiaren aurrean, Udalbatza honek, Adierazpen Institutuzional hau onar dezala eskatzen dugu:*

*“Udalbatza honek, herriaren eta, oro har, gizateriaren interesen ordezkari gisa:*

1. Gatazkan dauden alderdiei eta gatazkan parte hartzen duten erakunde guztiei eskatzen die Ukrainako gerran berehala su-etena aldarrikatzeko eta dagokion negoziazio-prozesua hasteko, prozesu hori, nolahi ere, oso berandu iritsiko den arren.

2. NATO desegitea eskatzen du. Euskadik eta Nafarroak aliantza militar horretan sartzearen aurka bozkatu zutela gogoratu beharra dago.

3. Derrigorrezko soldadutzaren aurka dago aurrez aurre, bai gizonentzat, bai emakumeentzat, gure gazteriari mehatxu egiten baitio.

4. Espainiako Erresumako Gobernuak onartzen dituen eta Ukrainako gerrara bideratzen diren aurrekontu ekonomikoak handitzearen aurka dago aurrez aurre.

5. Berriaz gaitzesten ditu Gazako GENOZIDIOA eta mundu osoan zehar HERIOTZAREN KULTURA gauzatzen duten gerrak. Herrialdeak eta kulturak suntsitzen ditu, babestutu eta zaindu nahi omen duten planeta hau, guztiz triskatzeko bidean jarriz.

Udalbatza honek, Palestinako herriaren aurkako erasoak bertan behera uzteko eta bere eskubideak itzuliko dizkion prozesu bateri ekitea eskatzen du.

6. Guzti horren alternatiba gisa, BIZITZAREN KULTURA baten aldeko apustua egiten du baita udalbatza honek, munduan heriotza, izugarrikeria, esklabotza eta miseria ereitera bideratutako baliabide eskergak, bere zaintzara zuzenduz.

Adierazpen instituzional hau Madrilgo Diputatuen Kongresuko euskal eta nafar ordezkari bidaltzeko eskatzen dugu, Adierazpen Instituzional horrekin batera proposamen bat aurkez dezaten, Diputatuen Kongresuko ganberan guzti honen inguruko eztabaida ireki dadin»

Aintzat hartuta, mozioaren edukia, eta batez ere, bertan proposatzen den adierazpen instituzionalarena, oso orokorrak direla, eta udalen eskumenenak gainditzen dituztela, Tokiko Gobernuaren Batzordeak, aho batez, erabaki zuen, ez helaraztea mozioa Osoko Bilkurari.

#### **4. Bizitza plataformak aurkeztutako Covid-19aren kudeaketaren ebaluazio publikoaren aldeko mozioaren azterketa.**

Irakurri zen Bizitza plataformak aurkeztutako Covid-19aren kudeaketaren ebaluazio publikoaren aldeko mozioa

«Covid-19aren kudeaketaren ebaluazio publikoaren aldeko mozioa.

##### **1. Sarrera**

Covid19 pandemia zabaldu zenetik 4 urte igaro ondoren, zuengana jotzen dugu ordezkari publiko gisa.

Lau urte hauetan gertatutakoaren balorazio eta azterketa publiko sakon baten alde ager zaitezten proposatzen dizuegu, orduz geroztik gertatutakoa eta guzti horren ondorioak eta emaitzak agertuko dituen.

##### **2. Udalbatzari eskaera**

Horren guztiaren aurrean, Udalbatza honek, Adierazpen Instituzional hau onar dezala eskatzen dugu:

**“Covid19 pandemia eta bera kudeatzeko hartutako neurri guztien ondorengo 4 urte hauek igaro ondoren, balorazio independentea eta azterketa publiko sakon bat egiteko unea dela uste dugu, bai horren guzti horren kudeaketari dagokionez, bai bere emaitzei dagokienez, egon badauden hainbat kezka eta zalantzaren aurrean.**

**Guztion artean eta guztion onerako, gaiari buruzko eztabaida publiko batetik hasita.”**

Adierazpen instituzional hau Osakidetzako eta Osasunbideako arduradunei bidaltzea eskatzen dizuegu, ebaluazio hori egin dezaten.



2024SECG0008  
8.bilera: OHIKOA 2024/10/24

Aintzat hartuta, Udal honek duen informazioaren arabera, bai Osakidetzak, baita Euskal Herriko Unibertsitateak ere, hainbat azterlan egin dituztela COVID-19aren inguruan hartutako neurriek izan dituzten inpaktuak aztertzeko, ez da beharrezkotzat jotzen eskatzen den balorazioa egitea. Horiek horrela, Tokiko Gobernuaren Batzordeak, aho batez, erabaki zuen, ez helaraztea mozioa Osoko Bilkurari.

## 5. Eskari eta galderak.

5.1.- Asier Urainek galdera bat egin zuen Historia Aurreko Bailaren proiektuan aurreikusitako jarduerak esleitzeko prozedurari buruz.

Idazkariak erantzun zion zeintzuk diren, orokorrean, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak eskaintzen dituen aukerak.

5.2.- Monica de Pradok, Kiroldegiaren kudeaketarako kontratuen harira, galdetu zuen lizitatzaille batek Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren (KEAO) aurrean aurkeztutako erreklamazioari buruz.

Errekurtsoari buruz, idazkariak erantzun zion zein den erreklamazio horiek izaten ohi duten kudeaketa, eta, KEAOk ebazpena eman arte, esleipen prozedura etenda gelditzen dela.

Horrenbestez, beste aztergairik ez zegoenez, 17:35ean amaitu zen Tokiko Gobernu Batzarraren bilera.

Joseluis Salaberry Iñarra  
Idazkaria



Alazne Txurruka Aliko  
Alkatea

